


06

*Nola diozu?*

Komunikazioa  
genero ekitatearekin,  
Mugarik Gaberen apustu handi bat



MUGARIK GABE





Garapenerako Lankidetzeta GKE den Mugarik Gabetik (mundu mailako) globala eta interdependentea den garapenean sinisten dugu. Giza garapen osoa lortu nahian, hau da, emakume, gizon eta herrialde desberdinen artekoa zein datozen belaunaldientzat iraunkorra izango dena, urko dugun ingurutik garatzen dugu lana, gero gure mugatik zabaltzen dugularik.

### **ARABA**

"Itziar" Elkarteen Etxea - Zalburu Plaza z/g, 01003 Vitoria-Gasteiz

araba@mugarikgabe.org

Tel.: 945 277 385 / 656708617

Fax: 945 277 385

### **BIZKAIA**

Vicente Garamendi taldea, 5 P.B. 48006 Bilbao

bilbao@mugarikgabe.org

Tel.: 94 415 43 07 / 94 415 48 21

Fax: 944 166 796

### **GIPUZKOA**

Katalina Eleizegi kalea 46, behea, 3, atea 20009 Donostia


gipuzkoa@mugarikgabe.org

Tel.: 943 445 977

Fax: 943 445 977

[www.mugarikgabe.org](http://www.mugarikgabe.org)

NOLA DIOZU?  
KOMUNIKAZIOA  
GENERO EKITATEAREKIN,  
Mugarik Gaberen  
apostu handi bat





#### **Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Internazionalela (CC BY-NC-ND 4.0)**

Dokumentu hau Creative Commons lizentziapean dago. Edukia libreki zabaltzea, kopiatzea eta birbanatzea baimentzen da edozein bitarteko edo formatutan, beti ere, egiletasuna aitortzen bada. Ezin da erabili xede komertzialarekin, nahastu edo eraldatu egiten bada edo materiala oinarri hartuta sortu egiten bada, ezin da eraldatutako materialik hedatu, ezin da lizentziak baimentzen duena legalki burutzea mugatzen duen neurri teknologikorik edo legezko akaberarik erabili.

Lizentzia osatua: [https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.es\\_ES](https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.es_ES)

*"2015ean telebistan, irratian edo idatzizko prentsan ikusi, entzun edo irakurri zen pertsonen inguruko informazioaren %24a bakarrik zen emakuzmekoei eskeinia. 2010ean kopuru bera izan zen".*  
Gaur egun hedabideek erakutsi eta errepikatzen dituzten desoreka eta pribilegioen adibide bat da. Aldatzeko garaia da.  
Hasi gaitezen gure komunikazio propioarekin.

(Argitalpen honetatik ateratako datua: ¿Quién figura en las noticias?  
El proyecto de Monitoreo Global de Medios 2015, Koord. Sarah Macharia)

# 1. Sarrera: Komunikazio ez sexista aldaketarako erreminta gisa



Artikulu bat idazten dugun bakoitzean, Facebooken iruzkin bat publikatzen dugunean, prentsaurreko bat egitean, material bat diseinatzean, mezu elektronikoko bat bidaltzen dugunean, gure izateko eta pentsatzeko modua transmititzen dugu. Gure komunikazioa jarduna ez da kasualitatearen ondorioa, eta azterketa sakona behar du, eraldaketarako helburu bat izanik, hala emaitzan, nola prozesuan ere.

Hedabideak protagonista diren munduan, gure komunikazioa transformatzen badugu, genero berdintasuna islatzen duen beste errealitate bat posible dela transmitituko dugu, bai eta horretarako egin beharreko aldaketak zeintzuk diren ere. Horregatik, nahi-taetzkoa da genero analisi bat egitea gure materialen elaborazioan, gure pentsatzeko moduan gakoa delako, guztiontzat jasangarria den giza garapena lortzeko. Genero desberdintasunak transformatu nahi baditugu, gure komunikatzeko modua ere ikertu behar dugu.

Dokumentu honen helburua jarraibide batzuk eskaintzea da, barne zein kanpo

komunikazioa egiterakoan erabilgarri izan daitezkeenak. Eboluzioan dagoen dokumentu bat da, 2009an eraiki genuena eta 7 urteren ondoren berriro publikatzen duguna orain proposamen eta erronka berriak berrartuz. Horien artean daude, esentzialismoak eta dikotomiak gaindituz genero identitatearen eraikuntzan sakontzen jarraitzea, eta errealitatea zein botere harremanak ez ulertzea soilik gizon-emakume perspektibatik, baizik eta sexu-aniztasun handienetik<sup>1</sup> eta ulertuta gure nortasunaren eraikuntza ez dela soilik generoan oinarritzen: klase soziala, jatorria, sexu-joera eta beste faktore batzuk ere determinanteak direla ulertuta.

Bidezkoagoa den komunikazio bat lortuko dugu hizkuntza, irudi, eduki eta metodologia bidezkoak erabiltzen baditugu, errealitateen aniztasuna ikus-tera ematen dutenak eta pertsona guztientzat bidezkoak, berdintasunezkoak eta alternatiboak diren imajinarioak eraikitzen laguntzen gaituztenak.

Uste dugu gakoa den elementuetako bat eta momentura arte gehien landu dugunetako bat **lengoaia** ez sexistaren erabilera izan dela, komunikazioan duen garrantziagatik eta lehenik ere landu dugulako (gaiaren inguruko hainbat erreminta eta publikazio sortu ditugu).

Esaten dute 'irudi batek mila hitz baino gehiago balio duela' eta, horregatik, aztertu eta genero perspektiba txertatu behar diogun beste arloetako bat irudiena da, gure komunikazio jardunean erabiltzen edo sortzen ditugun **irudiak** hain zuzen ere.

Dokumentu honetan edukien garrantzia nabarmendu nahi izan dugu, izan ere, askotan hizkuntza eta irudiak aldatzeko gai gara, genero perspektibaz

---

1 Dagoeneko ez dugu soilik emakume eta gizonetan pentsatzen, baizik eta pertsona transexaletan, transgeneroetan edo intersexaletan, eredu heteronormatibo eta patriarkaletik kanpo geratzen diren pertsona guztien gan horietan hain zuzen ere.

hausnartu eta perspektiba hori txertatu gabe. Aldaketa hauek makillaje ari-keta bat dira desberdintasun eta botereen gaineko hausnarketa erreal bat baino. **Edukiak** ikerketa eta proposamenak egiteko aukera gehiago ahalbidetzen digute.

8



Azkenik, **metodologiei** ere espazio bat eman nahi izan diegu, hala material didaktiko batzuetan sartzen ditugunei nola antolaketa espazioetan erabiltzen ditugunei (erabakiak hartzeko guneetan, talde lanetan, komunikazio ereduetan...). Mugarik Gaben beti baieztatu izan dugun bezala, gauzak egiteko moduak eragin zuzena du izango duen emaitzan.

Gauzak horrela, dokumentu hau 4 bloke handitan banatuta dago eta horietako bakoitzean gaiaren azalpen bat eskaintzeaz gainera, gure komunikazioan kontuan hartu behar diren jarraibide eta gomendioak ere azaltzen dira. Adibideak eta proposamenak elkartasunaren arloan zentratzen dira gehien bat eta errealitatearen ikuspegi orokor bat sustatzen dute.

Kasu guztietan saiatu gara aldaketa transformatzaileak ikertu eta proposatuko dituen **jarrera proaktiboa** izaten.



## 2. Hizkuntza



Hizkuntza, errealitatea nola ulertzen dugun adierazteko modua da; edo bestera esanda: errealitatearen inguruan dugun ikuspegia antolatzearekin batera bakoitzaren interpretazioa gizarteratze-ko baliabidea da.



Hizkuntzaren bidez pentsatu, informazioa zabaldu, ezagutza hedatu eta gizartea sortu eta antolatzen dugu. 'Hizkuntza burua eta giza jokabideen artean sortutako eremu sinbolikoa da' (Antolin, 2003). Beraz, hizkuntza pentsaera antolatzeko prozesuaren oinarria dela uste badugu orduan komunikatzerakoan egiten dugu erabilera kontutan hartzea ezinbestekoa da, hau da, **hizkuntzaren erabilera ez sexista** egitea. Hemen, erabilera sexistetan jauzi ez gaitezen gauza pare bat kontutan hartu beharko ditugu: 1. Batzutan erabilitako hitzek esanahi sexista izango dutela eta 2. Beste askotan, sexismoan jaustea ala ez jaustearen aldea pertsonak egiten dugun hizkuntzaren erabilerearen arabera egongo dela.

'Izena badu, bada'. Orduan aipatzen ez dena, ez dela existitzen eta gehiegi

10

aipatzen dena existitzen den bakararra pentsatzera eraman gaitezke. Beraz, emakumezkoak aipatzen ez baditugu, tamalez hedabideetan gertatzen oi den bezala, orduan existitzen ez direla eta protagonismoa gizonetzkoen (gehienetan txuriak eta mendebaldarrak) eskuetan dagoen errealitate baten ideia zabalduko dugu. Adibide honek hizkuntzaren eta bere erabileraren garrantziaz ohartaraztea du helburu.


**Androzentrismoa**, gizonetzkoak gauza guztien neurria eta errealitatearen muina direla baieztatu nahian, gizonetzkoak giza-erreferentziatzat hartu eta emakumezkoak menpekotzat jotzen dituen teoria da. Hedabideekin lotuta, nahiz eta euskararen kasua gaztelaniarekin konparatuta maila desberdinean kokatu, androzentrismoaren akats nagusia gizon-emakumeak biltzerakoan gizonetzkoei erreferentzia subjektua bihurtzea eta emakumezkoak baztertu eta desagertaraztea izango da.



Bestalde, **sexismoa** pertsonen sexuaren arabera katalogatzearekin batera sexu bakoitzari balore, gaitasun eta rol desberdinak ematen dion teoria da. Horrela emakumezkoek egiten dutena garrantzi gabekotzat hartuko da eta gizonezkoek egiten dutena eta zabaltzen dituzten baloreak kontutan hartuko diren bakarrak izango dira. Hemen, sexismoaren akats nagusiak sexu bakoitzari tratamendu desberdina ematea, (emakumezkoak txikiagotuz), ezaugarri desberdinak jartzea, (batez ere emakumezkoek estetikarekin lotuz eta bestalde gizonezkoek argitasunarekin) eta emakumezkoen kulturalki ezartzen zaizkien rola mespretxatzea izango dira nagusiki.

Itxuraz, euskara ia genero gabeko hizkuntza dela esan dezakegu, baina horrek ez du genero aldetik ekitatez jantzitako hizkuntza dela esan nahi. Esan bezala, egia da gaztelerarekin alderatuta Euskararen beste neurri bateko arazoan aurrean aurkitzen garela, baina kontutan izan behar dugu sexismoa hizkuntzaren gainean egiten dugun erabilerarekin lotura estua izango duela, batez ere hizkuntzaren bidez errealitatea proiektatu eta itxura ematen diogulako.

Izan ere, Emakundek argitaratu eta Amelia Barkinek idatzitako “Euskararen Erabilera Ez Sexista” argitalpenean aipatzen den moduan, (...) *hizkuntza batek generoa edukitzeak ala ez loturarik ez daukala, berez, gizartea parekoagoa edo ez-parekoagoa izatearekin. Munduan badaude generoa daukaten hizkuntzak (...) eta badaude generorik gabeko hizkuntzak, euskara eta mongoliera bezala. Ezin da sailkapen sinplerik planteatu aipatu parametroen arabera; ez da zuzena esatea generoa daukatenak sexistagoak direla besteak baino. Izan ere, esparru pribatua eta publikoaren banaketa generoen artean eta esparru publikoarekin lotutako prestigioa gizarte guzti-guztietan –euskal gizartean ere– hautematen dira, ikerketek kontrakoa frogatu arte; hori bai, era desberdinetan eta gizarte eta garai bakoitzari egokituak.*

12  Honekin lotuta hizkuntza bat berez sexista den edo ez galdetu diezaiokegu geure buruari, edo hizkuntza bat beste bat baino sexistagoa den. Horren inguruan argitalpen berean honako hau adierazten digu idazleak: *Uste dugu galderen formulazioa ez dela egokia. Ulegarria dirudi gizartearen izaera historiko ez-parekoek hizkuntzetan aztarnak uzteak. Susmatzen dugu munduko hizkuntzetan aurkitu ahal ditugula gizarteetan egon den eta dagoen generoen desberdintasunaren markak. Euskararen ere aurkituko ditugu: hitz batzuen esanahia, termino batzuen adieraren desberdintasuna emakumeei edo gizonei aplikatzen zaizkielarik... Eta aldi berean, esan behar da hiztunen ekoizpenetan hautemandako sexismoa hizkuntzaren erabilpenean dagoela gehienetan eta ez hizkuntzaren sisteman. Hiztunak, beraz, adierazteko modua aukeratu ahal du eta erabilera egokia egin dezake; hizkuntzak ez du desegoki adieraztera behartzen.*

Beraz, hizkuntzaren erabilpena aldatzen badugu orduan pentsaera eta ekintzak garatzeko beste erak sustatu ahal izango ditugu, hain zuzen ere gaur egun dugun hizkuntza androzentrikoa eta sexista alboratu eta ekitatea lantzeko hizkuntza berri bat eraikiz.

Jarraian, hizkuntza ez sexista erraztu dezaketean adibide eta proposamen zehatz batzuk zabalduko ditugu. Bai jarritako adibideak eta bai proposamenak bere **testuinguruaren** barruan aztertu eta ulertu behar direla argi uztea garrantzitsua da. Hori dela eta, eta ematen diren proposamenak lotuz, helburua testua genero arloan zuzena izateaz gain, irakurtzeko erraza eta gramatikalki egokia izatea da. Proposamentak euskara batuaren erabileran oinarritutakoak dira, euskarak baditu ordea bere aberastasunaren adibide diren euskalki anitz eta zentzu horretan ezin dugu ahaztu euskalki horietan idatzi edo mintzatzerakoan hartu beharreko neurriak desberdinak izango liratekeela.

PROPOSAMENAK	BAI	EZ
Batzutan <b>Generikoak</b> erabiliz (adina, lanbidea, gizarte taldeak...)	Alkatea	Alkate-alkatesa
Beste batzutan, pertsonaren <b>sexua adierazi</b> nahi badugu...	Alkate andrea	Alkatea
Aurreko proposamenaren aurkakoa badirudi ere, testuinguruaren arabera egoera batzutan <b>emakumezkoak eta gizonezkoak bereziki nabarmendu</b> nahi izatea gerta dakiguke. Horrela emakumezkoen lana espresuki ikustaraztea posiblea egingo zaigu, batez ere gizonezkoen lana izan ohi diren esparru eta ekintzetan.	Mercedes lantegiko emakumezkoak zein gizonezkoak EEEda zela eta greban gogotsu aritu izan ziren.  Emakume zuzendaria Emakume suhiltzailea	Mercedes lantegiko langileak EEEda dela eta greban gogotsu aritu izan ziren.  Zuzendaria Suhiltzailea

PROPOSAMENAK	BAI	EZ
<p>Komeni denean, eta ekintzarekin lotuta generoa adierazi nahi izatekotan, hitz elkartuetan <b>'-gizon' edo '-emakume' atzizkiak</b> erabiltzeko aukera emanez.</p>	<p>Enpresariak / enpresaburuak Enpresa-emakumeak Enpresa gizon-emakumeak</p>	<p>Enpresa-gizonak (Enpresari guztiei erreferentzia eginez)</p>
<p><b>Ordenak</b> ere boterea adierazten du...txanda katzen joan</p>	<p>Emakumeak eta gizonak Neskak eta mutilak...</p>	<p>Gizonak eta emakumeak Mutilak eta neskek...</p>
<p>Generoa duten hitzak baztertu eta <b>hitz-bazteratzaileak</b> erabiliz.</p>	<p>Seme-alabek Gurasoek Aita-amak</p>	<p>Semeek Aitek</p>
<p><b>"-sa" bukaera femeninoak ez</b> erabili, generikoak maskulino bihurtzen bait ditu</p>	<p>Alkatea / Alkate andrea Aktorea</p>	<p>Alkatesa Emakumezko aktore</p>
<p><b>Kontuz itzultzerakoan.</b> Gazteleratik euskaratzerakoan maskulino bate-ratzaile modura agertu ez dadin.</p>	<p>Mirenen gurasoak etorri dira.</p>	<p>Mirenen aitak etorri gin dira.</p>

PROPOSAMENAK	BAI	EZ
<b>Asimetria baztertu:</b> Emakumezkoei nahiz gizonezkoei tratu bera emanaz.	Lan-taldea Alaitz Iñurriategi eta Tasio Albizuk osatzen dute.  Autobusean bi bikote / lau lagun alemaniar ezagutu ditugu	Lan-taldea Alaitz eta Tasio Albizuk osatzen dute  Autobusean bi alemaniar eta bere emazteak ezagutu ditugu

Proposamen hauek ere noski gure erakundeek erabiltzen duten komunikazio digitalean eta ahozkoan (sare sozialak, web guneak, irratia, eztabaidak, hitzaldiak, prentsaurrekoak...) kontutan hartu beharko genituzke. Horrez gain bereziki kontutan izan beharko genuke sare sozialetako hartu-emanetan azkartasuna aitzaki hartuta esamolde sexistak erabiltzea eta berauetan emakumeen parte-hartzea bultzateza. Azkenik multimedia edukietan ere hizkuntzaren erabilera ez sexista bat ere egin beharko genuke, emakumeen presentzia areagotuz tradizionalak ez diren roletan eta lokuzio lanetan ere emakumeen ahotsak erabiliaz.



## Hika erabiltzeko proposamena:

Euskara, aurrean dugun hizketakideari sor diogun begirunearen eta hurbiltasunaren arabera Berorika, Zuka eta Hika mailetan sailkatu daiteke. Azkenengo kasu honetan, aditza desberdina izango da solaskidea emakumezkoa edo gizonezkoa bada.

Hika oso leku gutxitan eta batez ere berbetan aritzeko erabili izan da, baina gure hizkuntzaren aniztasuna eta bizitasunaren ezaugarria dela kontutan eduki behar dugu eta horregatik mantentzeko ahaleginak egin behar direnaren alde agertzen gara.

Egia da gure eguneroko lanean Zuka erabiltzen dugula, baina Hika forma bai testuei bai hizkerari hurbiltasuna eman diezaiokeela kontutan izan behar dugu. Sexua eta generoa gauza bera ez direla argi utzita, berba egiterakoan edo idazterakoan **aurrean dugun solaskidearen generoa argi dugunean** hika edo zuka erabiltzea pertsonarekiko dugun hurbiltasunaren arabera uzten da.

Baina hitz egiterakoan eta alboan dugun solaskidearen **generoa argi ez dagoenean**, orduan kasu hauetan Zuka erabiltzearen aldekoak agertzen gara. Idazterakoan berriz, kasu hauen aurrean Hika forma erabili dezakegu eta aditzean, generoa adierazten duen partikula agertzen bada, bi moduetara jarri beharko genuke. Hau posible egiteko eta irakurtzeko ulergarritasuna mantentzen dugula, generoa desberdintzen dituen partikulek k/n edo a/na marratxoan bidez, parentesien artean kokatuz edo aditza esateko era biak jarri genitzake.

Kartelak egiterakoan berriz mezua zuzena eta ulergarri izateko, genero bietarako balio duten aditz formak erabiltzea gomendatzen dira.



Hona hemen azaldutakoaren adibide batzuk:

PROPOSAMENAK	ERABILI BEHARREKOAK	BAZERTU BEHARREKOAK
Aurrean dugun <b>solaskidearen generoa argi</b> dugunean	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bileran egi biribila esan duk.</li> <li>- Bileran egi biribila esan dun.</li> <li>- Bileran egi biribila esan duzu.</li> </ul>	Hirurak ontzat hartuko ditugu
<b>Berba</b> egiterakoan <b>generoa argi ez</b> dagoenean	- Nola duzu izena?	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Nola duk izena?</li> <li>- Nola dun izena?</li> </ul>
<b>Idazterakoan</b> generoa argi ez dagoenean.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Nola dun/k izena?</li> <li>- Liburua eman zio(n)at?</li> <li>- Hik egin ahal dun/duk?</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Nola dun izena?</li> <li>- Liburua eman zioat?</li> <li>- Hik egin ahal dun?</li> </ul>
<b>Kartelak</b> egiterakoan	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Erabakia heuk hartu: Ez utzi besteen esku!!!</li> <li>- Heuk eraiki: Hire generoa, hirea!!!</li> <li>- Hator manifestaldi- ra!!!</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Erabakia heuk hartu: Ez ezak besteen esku utzi!!!</li> <li>- Heuk eraiki: Hire generoa hirea dun/duk!!!</li> </ul>

### 3. Irudiak

Irudiek ere gure posizionamendua transmititzen dute. Pertsona guztien arteko bidezko harremanak islatzen dituzten irudiak erabili behar ditugu. Gainera, go-goan izan behar dugu hizkuntza grafikoa dela begira lehenengo jotzen duena. Genero harremanekin bidezkoak diren irudiak hautatzeko jarraibideak planteatu aurretik, nabarmentzekoa da oso garrantzitsua dela erabiltzen ditugun irudietan aniztasuna erakustearen aldeko apustua mantentzea. Ez bakarrik sexuari dagokionean; adinari, aniztasun sexualari, jatorriari, edertasunari, gorputzei, gaitasun anitzei eta familia ereduei dagokionez ere, besteak beste. Era berean, kontuan hartu behar dugu hizkuntzarekin bezala, irudien kasuan ere **testuingurua** ikertu beharra dagoela.

Emakumezkoei eta gizonezkoei egoitzen zaizkien rol tradizionalak aldatzen saiatu behar gara. Emakumeen irudikapenari dagokionez, haien aniztasuna ikusarazi behar da (adina, 'edertasuna', sexu aukera...) eta emakumeen gorputzaren erabilerarekin apurtu behar da (sexu-objektua, publizitateapeua...). Etxeko espazioetatik kanpo



aurkeztu behar ditugu emakumeak; politikan parte-hartzen, lanean (ardura eta gizarte onarpeneko postuetan), aisialdian edo eta tradizionalki gizonezkoenak izan diren zereginetan ere ikusarazi behar ditugu.

Emakumeak bezala, **gizonak ere irudikatu** behar dira gizona alde batera utzita (bere buruaz aski dena, profesionala, erdi-goï malakoa, heldua eta emakumeekiko duen ikuspegi ia bakarra sexuala dena). Irudien bitartez espazio pribatuetan txertatu behar ditugu eta zaintzan zein etxeko lanetan jarrerara aktiboan irudikatu behar ditugu. Samurtasuna eta lagunartearekin harremana duten jarrerak ere irudikatu behar dira, gizonen ohiko irudietan hain ikusgarriak ez direnak.

Gai honi dagokionez, uste dugu garrantzitsua dela transmititu nahi ditugun baloreak nabarmentzea. Ez da soilik emakume eta gizonak berdin ikus-araztea, baizik eta "balore positiboek" eta "balore negatiboek" gaur egun duten kontsiderazioaren transformazioa sustatzea:

- Bidezko gizarte zuzenago batera eramango gaituen balore aldaketa bat positiboki baloratu behar da. Hala, adibidez, ideia ez litzateke emakumeak eta gizonak dominazio postuetan berdin kokatzea, baizik eta nahi dugun botere mota eta bere erabilpena zalantzan jartzea. Bide horretan, proposamen egoki bat litzateke eredu horizontal batean oinarritutako talde-koordinazio irudiak sustatzea, eta, kasu horretan, emakumeak ikus-araztea hauek koordinatzen.
- Tradizionalki negatiboak kontsideratzen diren balore edo gaiak berriz ere kontzeptualizatu behar ditugu, balore edo gai horiek berez baino, hauetaz egiten den erabilera delako negatibo bihurtzen dituena. (Adibidez, boterea: boterea hartzea edo ahalduntzea osagarri positiboa da, baina ez da horrela botere kontzentrazio edo pilaketaren kasuan).

- Emakume eta gizonak berdin baloratu behar dira. Adibidez, testuingurua-  
gatik aitatasun lizentzia bat hartu duen gizon bat saritzea eta ikusgarri  
egitea garrantzitsua bada ere, jarrera orekatu bat izan behar dugu eta ezin  
dugu gizonetzko heroitzat hartu, neskak egiten badu ikusezin ere gerta zi-  
tekeenean.

Gure irudietan haurrak irudikatzeko dugun modua ere ezin dugu ahaztu. Pu-  
blizitateak gaur egun etengabe errepikatzen ditu rol sexistak haurtzaroan.  
Horregatik garrantzitsua da ere rol horien aldaketa irudien bitartez zaintzea  
emakume eta gizonentzat planteatzen genituen gomendioekin.



Azkenik, gogorarazi behar dugu irudiek islatzen dituzte harremanak:

- **Gizon-emakume harremanak?**: Berdintasunean oinarritutako beste harreman mota batzuk eraikitzeko aukerak ikusarazi behar dira lantokian, adiskidetasun harremanetan, elkartasun, lankidetzeta eta elkarrekiko arreta eta laguntzan, dibertsio egoeretan edo arazo egoeretan, emakume eta gizonen arteko ohiko sedukzio-erakarpen-sexu harremanak baino harago joango direnak.
- **Emakume-emakume harremanak**: 'Emakume lehiaren' estereotipoarekin apur-tu behar da eta emakumeen arteko zintzotasun, atentzio, lankidetzeta, elkartasun eta laguntza harremanak erakutsi behar dira, lan arloan zein aisialdian.
- **Gizon-gizon harremanak**: Gizonen arteko lagunarteko harremanak erakutsi behar dira, bai eta tradizionalki emakumeenak izan diren lanak (zaintza, maitasuna,...) modu kolektiboan egiten. Era berean emakumeen sexualizazioari buruzko gizonen ohiko "begi-keinuak" ekidin behar ditugu.

Gure materialei dagokionez, planteatu diren jarraibide horiek kontuan hartu behar dira; hala sortzen ditugun material propioetan (marrazkiak, komikiak...) nola erabiliko ditugun bestelako irudietan (gureak edo lankide ditugun elkarteenak izanik ere). Gai honi dagokionez, eta inoiz marrazkiak haurrentzako baliabidetzat har daitezkeela aipatu den arren, hauen erabilerara testuinguru jakin bakoitzean baloratu beharra dago, izan ere, marrazkiak planteatzeko modu asko dago, eta zenbaitetan egoera eraldatzaileak islatzeko aukera hobea ematen digute, benetako argazkietan egoera horiek islatzea zaila den bitartean.

2 Atal honetan gizon eta emakumeen arteko harremanei buruz hitz egiten dugu, pertsonen arteko harremanetan ohikoen diren estereotipoekin apurtzea sustatuz. Hasieran planteatu dugun moduan, aldaketa horrek pertsonen aniztasuna erakutsi behar du, emakume/gizon biko ikuspegitik harago.

Programa batzuek eskaintzen dituzten aurrez diseinatutako irudien erabilera ere zaindu beharra dugu (Power Point, emotikonoak,...), izan ere, gizon gehiago agertzen dira, rol tradizionaletan ia beti, eta klase zein orientazio sexualari dagozkion beste estereotipoak ere mantentzen dira irudiotan.

Gure komunikazioetan txertatu beharreko irudiak hautatzeko hainbat proposamen:

PROPOSAMENAK	BAI	EZ
<p><b>Genero rol tradizionalak ez eszenaratu</b></p> <p>Alderantziz egin, "mezua" zabaldu nahi badugu.</p>	  	  




## PROPOSAMENAK

## BAI

## EZ

**Emakumeak** eta haien beharrak ikusarazi

Emakumeak irudikatu, eta ez gizonen prismatic irudikatutako emakumea.




**Zenbakizko oreka** islatu



## PROPOSAMENAK

## BAI

## EZ



Emakume eta gizonen irudien **tamaina** kontuan hartu, irudiaren **lekua**, **planoa...**,



Adin, jatorri, gorputz eta sexu orientazio **aniztasuna** eta **heterogenotasuna** irudikatu






## PROPOSAMENAK

## BAI

## EZ

Irudietan ere emakumeak **persona aktibo** bezala irudikatu



Puntu honetan bereziki eskertu nahi ditugu proposamen hauek irudikatzeke hainbat erakunde eta hedabideen marrazki eta argazkiak.

## 4. Edukiak



Bloke honetan, barne zein kanpo komunikazioak garatzerako orduan kontuan izan beharreko hainbat alderdi jasotzea dugu helburu.

### a) Errealitatearen analisisia

Hizkuntzaren atalean ikusi dugun moduan, androzentrismoak gizon ikuspuntua orokortzen du errealitatearen multzoa ikertzeko parametro erabilgarri gisa. Horrela emakumeak eta heteronormatiboak ez diren beste pertsona batzuk eta haien ekarpenak ikusezin bilakatzen dira. Androzentrismoak eta sexismoak errealitatearen ikuspegi partzial eta faltsua sortzen dute. Horrek gainera, emakumeak eta heteronormatiboak ez diren beste pertsona batzuk gizonen aurrean mendekotasun egoera batean mantentzen ditu.

Horregatik, garrantzitsua da genero ikuspegi batetik landutako edukiak dituen komunikazioa eskaintzea, informazio objektiboa eta osatua emango duena, pertsona guztien errealitatea ikus-arazi, eta emakume eta heteronor-

matiboak ez diren beste pertsona batzuen mendekotasun egoera salatuko duena.

**Genero azterketa;** lana, baliabideak, aisialdia, aberastasuna, kultura zein boterea eskuratzeko dituzten zailtasunak presente izanik emakumeek, gizonek eta beste subjektu batzuek betetzen dituzten funtzioen ikerketa sistematikoa da. Genero azterketari esker genero desberdintasuna sortu eta birstortzen duten prozesu eta erakunde sozialak uler ditzakegu; gizonek -giza-talde bezala- erabiltzen dituzten menderatze mekanismoak; emakumeak euren lanen etekinez desjabetzeko dauden moduak; heteronormatiboak ez diren gorputzen ikusezintasuna; gaitasunaren eta sexu-portaeren balorazio desorekatua, edo eta modu honetan baliabideak zein boterea eskuratzeko sortzen den desberdintasuna.

Genero analisi bat egiteko guzti horren kausak zeintzuk diren ere identifikatu beharra dakar. Horregatik, errealitate zehatz baten arrazoiak ikertzean, eredu patriarkal, hereronormatibo eta androzentrikoaren nagusitasuna ere azaldu beharra dago.

Hauek dira kontuan hartu daitezkeen alderdi batzuk:

- Datu kuantitatiboak: zenbat gizon eta emakume zein beste subjektuei buruz ari garen.
- Egoera horrek emakume, gizon eta beste subjektuei nola eragiten dien, eta zeintzuk diren haien eskakizunak.
- Indarrean dauden botere eta desberdintasun harremanak.

- Sexu guztien lorpen eta baloreak ikus-araztea. Emakumeen presentzia modu orekatuan erakutsi behar da, ez ohiz kanpoko eta noizbehinkako kasu bezala. Oreka hori lortzeak historia, politika, giza-eskubideak, zientzia, teknologia eta kultura bestelako moduz begiratzea dakar berekin.
- Arlo horietan gailendu diren emakumeen partehartzea eta ekarpenak nabarmentzea.
- Emakume eta heteronormatiboak ez diren beste subjektu batzuen iritzia agertzea ikerketan.
- Emakumeek egindako akatsak edo izandako porrotak azpimarratu eta gizonezkoek egindako antzeko akats edo porrotak txikitzeko tendentzia zaintzea.
- Samurtasuna, errukitasuna, indarra, dinamismoa, duintasuna, agintea eta segurtasuna bezalako ezaugarriak sexu guztietan propio eta desaragari moduan islatzea.
- Gure komunikazioak balioan jartzea adinez txikiko pertsonak, nagusiak, gaixoak edo gaitasun desberdinak dituzten pertsonen zaintza eta atentzioari lotutako jarduerak. Ez soilik zaintzen duen pertsona baloratzea, baita ere zainduak diren pertsonak, jarrera aktibo batekin ikusita.
- Kontuan hartu kolektibo batzuen diskriminazio bikoitz edo hirukoitzak, emakume izateaz gainera bestelako ahultasun egoera bat ere sufritu baitezake; kultur taldeagatik, sexu identitate edo orientazioagatik, nazionalitateagatik, adinagatik...

- Lanen sexu banaketa barne hartzen duten testu eta adierazpen grafikoak ekidin eta erantzunkidetasun kontzeptua indartzen dituztenak erabili.
- Aipua erabiltzen baditugu, hizkuntzaren erabilera sexista egiten duten horiek ekidin edo zuzendu testuan azalduta (orri-oinean edo beste modu batean). Emakumeak ikusezin bihurtzen ez dituzten eta haiei buruz duintasunez aritzen diren aipua erabili.

## **b) Proposamenak/alternatibak**

Genero berdintasunetik egindako komunikazioa gauzatzeak ere aldaketak dakartza. Bidezkoagoak diren harremanak eraikitzeke, emakume, gizon eta beste subjektu batzuen parte-hartzea bultzatzen duten bestelako proposamenak egin beharko dira.

Alternatibak, diren gaiaren ingurukoak direla ere, feminista den eta desberdintasun harremanak eraldatzeko helburua duen perspektiba batetik proposatu behar dira. Horretarako, genero harremanak maila guztietan (analisi, kausak) integratuta egon beharko dira eta aldaketak proposatu behar dituzte (hausnarketa, ekintza).

Gure komunikazioetan proposamenak egiterako orduan kontuan hartu daitezkeen zenbait alderdi:

- Emakume, gizon eta beste subjektu batzuen arteko botere harremanetan eraldaketa proposamenak egin behar dira.
- Emakumeak aldaketarako aktiboak diren pertsonak bezala agertu behar ditugu eta haien gaitasun eta balioaren aldeko konfiantza sortu behar da.

- Egiten diren proposamenetan emakumeak, gizonak eta beste subjektuak ere parte eta gonbidatuta senti daitezela.
- Komunikazio erreminta eraikitzen duen horren genero berdintasunarekiko konpromisoa adieraztea.
- Irudien atalean azaltzen genuen moduan, ikuspegi feminista batetik gaur egungo baloreen eraldaketaren beharra aipatzea gakoa da gure proposamenetan paradigma aldaketa oso bat lortzeko.



## 5. Metodologiak



Edozein motatako komunikazio erre-minta bat planteatzean, gure praktike-kiko koherentzia oso kontuan hartu behar dugu, bai eta aurretik proposatu ditugun analisiekiko ere. Kasu askotan, gure testuinguruetako genero desberdintasunak ere gure praktiketan islatzen dira. Horregatik, denbora eskaini behar diogu gure entitateen eta gure egunerokotasunean berdintasunean oinarritutako harremanak eraikitzeari.

31

Gure komunikazio jarduna garatzeko orduan garrantzitsua da egin beharreko lanak eta erantzukizunak nola banatzen diren baloratzea. **Gure buruari galde-tu behar diogu "nork egingo du zer?" eta "zergatik?"**, zer eta lanen genero banaketa birsortzen ari ote garen baloratzeke.

Gizonek zein emakumeek zein lan edo gai garatzen dituzten hausnartu behar dugu, bai eta hauekiko egiten den balorazio desberdintasuna zein den ere. Adibidez, pentsatu behar dugu: Genero berdintasuna eta feminismoarekin zerikusia duten gaiak beti emakumeek garatzen dituzte? Kanpo kolaborazioak

bilatzen ditugunean adibidez, baloratu behar dugu emakumeak gai batzuetan eta gizonak beste batzuetan aditutzat hartzen ote ditugun.



Galdera zehatz batzuk:

- Nortzuk ari dira taldearen komunikazio edo material horretan lanean?
- Zeintzuk dira parte hartzen duten pertsonak dituzten eginbeharrak?
- Parte hartzen duten pertsonak aukera berdinak dituzte? Denbora, baliabideak...
- Material edo dokumentu hori osatzeko pertsonen sexuan oinarritutako lan eta arduren banaketa eta balorazioa dago?
- Zeintzuk dira lantzen diren gaiak? Emakumeen gaiak eta gizonen gaiak daude? Zergatik?



- Gai batzuetarako kanpoko emakume kolaboratzaileak bilatzen ditugu eta beste batzuetarako gizonak? Zergatik?
- Gure komunikazioaren inguruan erabaki eta eraikitzerako orduan parte-hartze metodologiak erabiltzen dira?
- Gure lan egiteko moduak zer sustatzen du? Tradizionalki gizonen baloreak direnak: produktibitatea, eraginkortasuna, indibidualismo heroikoa...? Edo tradizionalki emakumeenak diren baloreak, zaintza, ikasketa edo kolektibo dena?
- Zeintzuk dira sustatzen ditugun komunikazio ereduak? Entzuketa aktiboa, adierazgarria, errespetuzko elkarrizketa eraikitzailea... Izan hau hitzezko komunikazioa edo eta hitzik gabekoa.

Era berean, kontuan hartu behar dugu talde lana edo indibiduala sustatzen ote dugun. **Taldean lan**<sup>3</sup> egitearen aldeko apustua egin behar dugu posible den guztietan, parte-hartzea bultzatu eta erakundeko pertsonen ikasketa eta ahalduak sustatzen dituelako. Taldean lan egiten dugunean, nola egiten dugun baloratu behar dugu: parte-hartze aktiboa kontsultatu edo bilatzen da? Parte-hartze aktiboagoa nahi bada, informazioa osorik eman beharra dago, eta talde-lana sustatzeko mekanismo eta dinamika eraginkorrak bilatu behar ditugu.

Antolaketa lanean oro har, eta zehatzago talde-lanean, oso garrantzitsuak dira gure **jarrerak** eta taldean bultzatzen ditugunak. Entzute aktiboaz gain, errespetuzko jarrera positibo eta eraikitzailea sustatu behar da. Horrekin

3 Ikusi bibliografian patriarkala ez den talde lanari buruz Mugarik Gabek egindako publikazioaren erreferentzia.

batera jarrera orekatu bat sustatu behar da ideiak edo proposamenak **entzuteko** orduan ere, izan hauek emakumeek zein gizonen ekarriak. Eta pertsona guztien **partehartze aktiboa** sustatu behar da.

34



Parte-hartze aktibo eta orekatua sustatu behar dugu, lan esparruetan zein erabakiak hartzean, beste erreminta batzuek gain, parte-hartze metodologiak erabilita.

## Dinamikak dituzten materialak

Sortu dugun materialak talde dinamikaren bat jasotzen duen metodologia bat barne hartzen badu, generoa eta heziketari buruzko gida bat kasu, kon-tuan hartu behar ditugu:

- Nori zuzentzen zaion jarduera, aniztasun irizpideak aintzat hartuta (gene-roa, sexu orientazioa...),
- Talde misto bat badago, planteatu behar da sexuen arabera antolatutako talde-jarduerak egitearen beharra, gaiaren arabera.
- Proposatzen diren dinamikak aktiboak izan behar dira eta pertsona guztien parte-hartzea sustatu behar dute.
- Posible den guztietan, emakume eta gizonen, edo neska eta mutilen arte-ko rol aldaketa sustatuko duten dinamikak jaso behar ditugu.

## 6. Kontsultatutako dokumentu gomendagarriak



ANTOLÍN Luisa, "La mitad invisible. Género en la Educación para el Desarrollo", ACSUR-Las Segovias, Madrid 2003.

BENGOETXEA Mercedes, "Guía para la revisión del lenguaje desde la perspectiva de género", Bizkaiko Foru Aldundia.

BURCH Sally (coord.), "Comunicación, organización y género. Ellas tienen la palabra", Área de mujeres de ALAI, Quito, 2009.

CORDEIRO Cristina, RODRÍGUEZ Alixe, HERRERO Amaia, RUIZ Patricia, "Libro de estilo para evitar el sexismo en los medios de comunicación", Bilgune Feminista, Bilbao, 2004.

DOSAL Pilar (coord.), "Medios de comunicación y género", Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbao, 2004.

EMAKUNDE, "Publizitate eta komunikazio ez sexistarako kode deontologikoa eta autoerregulaziokoa Euskadin. Oinarrizko printzipioak" Begira, Emakunde.

EMAKUNDE, "Género ikusmiran TBn", Emakunde, Vitoria – Gasteiz, 2001

ESK "GAIK Por una utilización inclusiva y no sexista del lenguaje en ESK". ESK, 2008.

ESTEBANEZ, Janire, VAZQUEZ, Norma, "Genero desberdintasuna eta sexismoa

gizarte-sareetan”, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Eusko Jaurjaritza, Vitoria – Gasteiz, 2013

GONZALEZ Sonia, “Lo que no se nombra no existe. Protocolo para una utilización no sexista del lenguaje”, Eusko Jaurjaritza, 2002.

INSTITUTO CANARIO DE LA MUJER, “Orientaciones sobre uso no sexista del lenguaje administrativo”. Instituto Canario de la Mujer, 2006.

IRAZABAL UGALDE, Arantzazu. “Guía de Estilo en Castellano en Comunicación y Género. Ayuntamiento de Derio, Derio, Bizkaia, 2006.

JORGE Ana, “Mujeres en los medios, mujeres de los medios. Imagen y presencia femenina en las televisiones públicas: Canal Sur TV”, Icaria, Bartzelona, 2004.

LETE Ana (coord.), “Mujer Publicada, Mujer Mal Tratada. Libro de estilo para informar en los medios de comunicación sobre la mujer”. Nafarroako Gobernua, Iruña, 2003.

LOPEZ DIEZ, Pilar, “Utilización no sexista de la imagen en acciones de Marketing y Publicidad. Protocolo General de Utilización de la Imagen de las Mujeres y de los Hombres. Bizkiako Foru Aldundia.

MEANA SUÁREZ, Teresa. “Porque las palabras no se las lleva el viento. Por un uso no sexista de la lengua, Quart de Poblet-eko Udala.

MUGARIK GABE, “El trabajo en equipo no patriarcal. Herramienta de cambio hacia organizaciones con una apuesta feminista de transformación social”, Mugarik Gabe, Bilbao, 2013.

PASTOR N., “Berdintasunaren aldeko eskuliburua”, Portugaleteko Udala Gizarte Ongizatea.

PEREZ DE ARMIÑO, Karlos, “Diccionario de Acción Humanitaria y Cooperación al desarrollo [Definición Género. Clara Murguialday]”, Icaria, Hegoa, Bilbao 2000.

RINCON, Ana (coord.) "El lenguaje, más que palabras. Propuestas para un uso no sexista del lenguaje". Emakunde, Vitoria-Gasteiz, 2000.

SANTESTEBAN, Arantza "Komunikazio parekiderantz, kazetarientzako eskuliburua", Arrasateko Udala, 2015.

BARQUÍN, Amelia, "Euskarararen Erabilera Ez Sexista". Emakunde, Vitoria-Gasteiz, 2008.

Gainera, **Interneten** topa ditzakezuen baliabide hauek gomendatu nahi dizkiegu:

- Nombra en red: Emakumearen Institutuak "Nombra en Red" programara doaneko sarbidea eskaintzen du. Hiztegi elektronikoa bat bezala instalatzen da ordenagailuan eta zalantzak kontsultatu daitezke testuetan hizkuntza sexistaren erabilera ekiditeko. Hemen deskargatu daiteke: <http://www.migualdad.es/mujer/descarga/NombraEnRedSetup.exe>
- T-incluye.org: Webguneetan hizkuntza sexista ez erabiltzeko ekimen bat da. Beste erreminta batzuen artean, "webguneen aztertzaile" bat eskaintzen du eta bere dokumentazioan aurki daiteke hizkuntza ez sexistari buruzko web baliabideen laburpen bat. Hemen deskargatu daiteke: [http://www.tincluye.org/recursos/documentos/documentos/Recopilatorio\\_de\\_recursos\\_web\\_sobre\\_lenguaje\\_no\\_sexista.pdf](http://www.tincluye.org/recursos/documentos/documentos/Recopilatorio_de_recursos_web_sobre_lenguaje_no_sexista.pdf)
- SEMLAC: Latinoamerika eta Karibeko Emakumeen Albiste Zerbitzua da eta gai hauek lantzen dituen hileroko buletin bat dauka. <http://www.redsemlac.net/>
- Pikara Magazineko Glosario Feminista eta Keinu Hizkuntzakoa. Glosario honek teoria feministako termino propioak ditu eta hala ez diren beste batzuk ere, baina genero perspektibatik definituta daudenak. Glosario horrekin, keinu hizkuntzan keinuak zeintzuk diren ikas daiteke: <http://glosario.pikaramagazine.com/inicio.php?lg=es&sec=inicio>



MUGARIK GABE  
www.mugarikgabe.org

¿Qué mundo  
queremos?

hitzekoa de seres, y no de teneres  
zein izakiek, de mujeres  
ez edukitzeak, de  
osatzen dutena, libres

Zure ekarpenari esker lanean jarraitzen dugu.

Mugarik Gaberekin kolaboratu dezakezu

urteroko kuota batekin,

diru dohaintza puntualekin edo elkartasun legatu batekin.

Horrela, hezkuntza eta lankidetzarekin bitartez,

persona guztientzako justua den mundu baten alde

egingo duzu.



Diru-sartzeak web gunean edo honako kontuan:

FIARE Banca Etica ES36 1550 0001 20 0000688622

LABORAL KUTXA ES71 3035 0083 22 0830701234